

# IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

## AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

### HE2

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

**1 Arrain espezien galera geratu ezean, arrantza berehala ..... da.**

- a) gailenduko
- b) ahituko
- c) higuinduko
- d) sustatuko

**2 Ez dago laino izpirik zeruan: .....**

- a) ostarteak ageri dira han-hemen.
- b) horra hor ostadarra!
- c) oskarbi dago.
- d) oskorri dago.

**3 Mutil handia dela adierazteko, zein da DESEGOKIA?**

- a) Hori da mutil alea, hori!
- b) A zer mutil puska, hori!
- c) Zer den handi-mandia mutil hori!
- d) Mutil galanta egin haiz!

**4 "Goiz guztian ehizan ibili eta gero, mela-mela eginga heldu ginen etxera". Zelan heldu ziren?**

- a) Guztiz nekatuta.
- b) Hotzak hartuta.
- c) Sukarrak jota.
- d) Guztiz bustita.

**5 "A zer-nolako astakeriak entzun behar izan genituen!" Zein da baliokidea?**

- a) Direnak eta ez direnak entzun genituen.
- b) Esan banuen, esan nuen; esan ezpanuen, hobe nuen.
- c) Nola entzun, hala erantzun.
- d) Entzun eta isil, baiezko biribil.

**6 Zeinek adierazten du errespetuzko jokabidea?**

- a) Amaren begipean hazi da hori.
- b) Begirasun gozoa dauka horrek.
- c) Begirunez hartzen ditu ikasleak.
- d) Aspaldi hartu ninduen begitan irakasleak.

**7 Zein bikote EZ DA sinonimo?**

- a) Zoria / Halabeharra
- b) Aldartea / Aldarria
- c) Sumina / Haserrea
- d) Asperena / Intziria

**8 Lantegian ez dute ..... hartu.**

- a) behar adina prebentzio neurri
- b) behar adinako prebentzio neurriak
- c) behar adina prebentzio neurriak
- d) behar adinako prebentzio neurri

**9 Guztiok dugu eskubidea politikaz iritzia plazaratzeko. ...., bada, neure hausnarketa ozen egitera.**

- a) Noa
- b) Noakizu
- c) Noan
- d) Noala

**10 Gauza bakoitza bere garaian egin behar dela adierazteko?**

- a) Udaberrian makatza, udazkenean mahatsa.
- b) Edukitzea baino, ematea hobe.
- c) Zeuretzat zurea, neuretzat nirea, horra hor, zuzenbidea.
- d) Zoriona, alaitasunaren txori ona.

**11 Handikiro ospatzen dituzte jaiak; .... harrokeriaz, .... umore onez eta ganoraz.**

- a) ez noski / baina bai
- b) izan ere / hala nola
- c) nahiz eta / baina
- d) jakina / eta baita

**12 "Sekula ez du horrenbeste irabazi". Zein da baliokidea?**

- a) Inoizko irabazirik handienak izan ditu.
- b) Inoiz izan ditu irabazi handiagoak.
- c) Inoiz bezain irabazi handiak izan ditu.
- d) Inoiz bezalako irabazi handiak izan ditu.

**13 Zein da zuzena?**

- a) Niri askotan hartu ninduten auto-stopean.
- b) Ikaragarri harritu zitzaidan jarrera hura.
- c) Haur horiei ez diegu ongi tratatzen.
- d) Gurasoek berehala etorrarazi zuten alaba.

**14 Zein dira antonimo?**

- a) itzala / ospea
- b) eragotzia / trabatua
- c) mentura / patua
- d) mengela / sendoa

**15 Zein dago TXARTO?**

- a) Debekatuta dago eskean ibiltzea.
- b) Barkamen eske dabil.
- c) Pastel goxo bat eske dabil.
- d) Maitasun eske ibiltzea ez da hain arraroa.

**16 "Eurria ari du eta moduz, gainera". Zer esan nahi du?**

- a) Zirimiria ari duela.
- b) Eurizirina ari duela.
- c) Euri lanbroa ari duela.
- d) Barra-barra ari duela.

**17 Ustekabean iritsi dela esateko:**

- a) Etorri, etorri zara!
- b) Hara! Nor etorriko eta zu!
- c) Etortzekoa zinen, bada!
- d) Etorriko bazina, behintzat!

**18 Zer moduz dabil taldea? Ez ongi eta ez gaizki, ..... .**

- a) hori
- b) hola
- c) horixe
- d) hortxe

**19 "Oposaketak gainditu zituenetik, praktetan kabitu ezinik dago". Zelan dago?**

- a) Lanean
- b) Harro
- c) Itxaroten
- d) Urduri

**20 Gaur egun ikasliburuak askoz ere txukunagoak dira: marrazki ..... dituzte, eta ez dira hain ..... .**

- a) biziagoak / premiazkoak
- b) liluragarriak / doakabeak
- c) erakargarriak / astunak
- d) sotilak / ederrak

**21 "Eltze askotako burruntzalia da hori!" Zer esan nahi du?**

- a) Oso abila dela arazoak konpontzen.
- b) Isilik egotea gustatzen zaiola.
- c) Sukaldean lan egitea gustatzen zaiola.
- d) Besteren kontuetan sartzea gustatzen zaiola.

**22 Etxe honetan dena ez da txukuna. Bada zer ..... !**

- a) garbiturik
- b) garbitzerik
- c) garbitzekorik
- d) garbirik

**23 Gizona zuzena egiten duten dohainek egiten dute, ....., herria zuzena.**

- a) aitzitik
- b) baina
- c) halaber
- d) hala ere

**24 Non dago ortografia-akatsa?**

- a) lanabeza
- b) ezereza
- c) esamesa
- d) ezdeusa

**25 Hamaika bertso bota genuen! Beharko, bertsozale haiek ..... !**

- a) aseko baziren
- b) aseko balira
- c) ase baziren
- d) ase ziren

**26 Ehiztariak ..... maite dute izadia?**

- a) zoriz
- b) zinez
- c) emeki
- d) asmoz

**27 Zein da DESBERDINA?**

- a) Bete-beteen asmatu zuen.
- b) Bat-batean asmatu zuen.
- c) Erdiz erdi asmatu zuen.
- d) Goitik behera asmatu zuen.

**28 "Ahuspez aurkitu zuten hilotza". Zelan aurkitu zuten?**

- a) Ahoz gora.
- b) Ahoz behera.
- c) Aho zabalik.
- d) Ahopeka.

**29 "Zer egin duzu nire aholkuekin?" Aukeratu erantzun zuzena.**

- a) Ikaragarri balio zaizkit.
- b) Ez dakizu zenbat balio didaten!
- c) Asko balio dizkirate; mila esker!
- d) Une hartan asko balio zitzaidan.

**30 ..... merkeen ipini dituzte salgai beren uztak.**

- a) Ahal
- b) Albait
- c) Sekula
- d) Inon

**31 Irakasle berria izango .... albistea eman digute.**

- a) dugun
- b) dugunaren
- c) dugulakoaren
- d) denaren

**32 Zein da OKERRA?**

- a) Honezkeroko konturatuko da.
- b) Honezkeroko konturatu da.
- c) Honezkeroko konturatuko zen.
- d) Honezkeroko konturatua izango da.

**33 Munduan gero eta interes eta ..... handiagoa pizten dute euskarak eta euskal kulturak.**

- a) jakinduria
- b) jakintza
- c) jakin-min
- d) jakingarri

**34 "Zuk 4 irabazten duzu; Patxik 20". Zer esan nahi du?**

- a) Gutxi irabazten duzula.
- b) Zuk baino gehixeago irabazten duela Patxik.
- c) Zuk halako 5 irabazten duela Patxik.
- d) Patxik adina irabazten duzula.

**35 Zein da zuzena?**

- a) Gogoratu opari bana dituzuela etxean.
- b) Zein auzotik deitzen duzu?
- c) Seme-alabei horrela hezi dieten gurasoek zer espero lezakete?
- d) Ez nizun deitu etxera beranduegi zelakoan.

**36 Genero indarkeriazko epaiketa batean, hilketaz gain, tratu txarrak ere ..... dira lehen aldiz.**

- a) eman
- b) aintzat hartu
- c) eragotzi
- d) iradoki

**37 Era guztietako albisteak iristen zaizkigu: onak, ..... eta txarrak.**

- a) egiazkoak
- b) ertainak
- c) hala-holakoak
- d) okerrak

**38 Zein da zuzena?**

- a) Gaur primeran ikusten zaio Olaizolari.
- b) Ondo ikusten dugu gaur Olaizola.
- c) Ondo nabaritzen diogu Olaizolari.
- d) Primeran dirudi Olaizola.

**39 Non dago ortografia-akatsa?**

- a) Partziala, sekzioa.
- b) Intuizioa, misioa.
- c) Erresistenzia, trakzioa.
- d) Intsumisioa, intsektua.

**40 Euskal Herrian arrotza ..... , nazioartean indar handia du pertsona horrek.**

- a) delako
- b) ez ezik
- c) denez
- d) izan arren

**41 Zein da OKERRA?**

- a) Eskerrak aipatu duzun!
- b) Eskerrak aipatu duzula!
- c) Eskerrak aipatu duzuna!
- d) Eskerrak aipatu duzu!

**42 "Ez da isildu ere egiten". Zein da baliokidea?**

- a) Hitzekoa da pertsona hori.
- b) Hori beti hitz eta pitz.
- c) Hori beti bere hitzean.
- d) Eutsiko dio horrek bere hitzari!

**43 "Bi horiek, beti .....". Zeinek du esanahi DESBERDINA?**

- a) mokoka
- b) sesioan
- c) harro-harro
- d) demandan

**44 Seme-alabek nahi dutena egiten didate: barregarri ..... .**

- a) narabilte
- b) naramate
- c) nakarte
- d) naukate

**45 "Etorri ote da irakaslea?" Ez zaude ziur. Nola erantzun?**

- a) Etorriko ez zen, bada!
- b) Bai, zera etorriko zen!
- c) Bai, etorriko zen.
- d) Etorri balitz, behinik behin!

**46 Zoria aldeko duela adierazteko:**

- a) Kukuak jo dio.
- b) Zozoak jo dio.
- c) Urretxindorrek jo dio.
- d) Txoriak jo dio.

**47 "Hara joanda, bertsoen hutsunea nabarituko zuen seguru asko". Zer adierazi nahi du?**

- a) Ganora gabeko bertsoak zirela haiek.
- b) Akatsak bilatzen zizkiela bertsoei.
- c) Bertsotan egiteko aski lekuri ez zela.
- d) Bertso falta nabaritzen zuela.

**48 Zein da DESBERDINA?**

- a) Txit berezia.
- b) Arras berezia.
- c) Aski berezia.
- d) Zeharo berezia.

**49 ..... galdetu nien eta ..... erantzun zidaten.**

- a) Hamahiruei / lauak
- b) Hamahiruri / lauk
- c) Hamahiruari / lauk
- d) Hamahiru / lauak

**50 Barazki, fruta eta ..... lehiaketak ikusteko aukera bazegoen.**

- a) beste produkturen
- b) hainbeste produktuen
- c) hainbat produkturen
- d) bezalako produktuen

**51 Mikel, buka ..... behingoz lana!**

- a) ezak
- b) ezan
- c) diezagun
- d) gaitzazu

**52 Zein da OKERRA?**

- a) Bi emakumeri erasotzeagatik atxilotu dute.
- b) Semeari eskutik heldu dio.
- c) Etxeraino jarraitu zion neskari.
- d) Izugarri nazkatu didazu.

**53 Buruan ..... ideia, distiratsuen izanda ere, ez da ezer hitzen bidez zehaztu arte.**

- a) doakidan
- b) dakidan
- c) darabildan
- d) datorkidan

**54 Politikan ustelkeria badela frogatzeko adibide asko dago. .... modura, bat aipatuko dut.**

- a) Erakusleiho
- b) Erakusketa
- c) Erakustaldi
- d) Erakusgarri

**55 Konforme ez eta Euskalerrria Irratiak ..... aurkeztu du lizentzien banaketaren aurka.**

- a) helburua
- b) helmena
- c) helegitea
- d) helmuga

**56 Eguzkiak erasaten dit; ..... .**

- a) erne ibili beharko dut
- b) ez dut estalki beharrik
- c) aprobetxatu beharra daukat
- d) mesede baino ez dit egiten

**57 Zein bikote EZ DA sinonimo?**

- a) Jendilajea / Jentilak
- b) Arbasoak / Asabak
- c) Ipuina / Elezaharra
- d) Ahaidea / Senidea

**58 "Mari-matraka hutsa da hori; .....". Aukeratu jarraipen egokia.**

- a) zeinen serio dabilen beti!
- b) hain isila da, gajoa!
- c) fina baino finagoa da!
- d) neure onetik ateratzen nau!

**59 Iturria ..... edo galdu bitartean, beti ..... dira tanta batzuk.**

- a) bilatu / falta
- b) agortu / isurtzen
- c) ihartu / urtzen
- d) arakatu / gelditzen

**60 Etsiturik nago; .....**

- a) baina ez daukat itxaropen handirik.
- b) alfer-alferrik ari naiz.
- c) eta gai naiz oraindik horretarako.
- d) hau da sasoia daukadana!

**61 Letra egokirik ezean, ..... gelditzen da kanta.**

- a) hankaz gora
- b) hanka-motz
- c) hanka-hutsik
- d) hanka-arin

**62 Errota zahar maitea, uraren ....., negar egiten duzu .....**

- a) erdian / joan-etorrian
- b) aldean / hala zaudenean
- c) ertzean / aleak xehatzean
- d) azpian / kar-kar egitean

**63 "Aitaren egin orduko, amaituta zeukaten lana". Zer esan nahi du?**

- a) Aitak baino lehen amaitu zutela.
- b) Kostatuta, baina amaitu zutela.
- c) Aitarekin amaitu zutela.
- d) Berehala amaitu zutela.

**64 Zein EZ DA zuzena?**

- a) Gero eta zarata handiagoa, orduan eta okerrago.
- b) Badut aitona etorriko den ustea.
- c) Ahalegindu gutxiago edaten eta ikasi ondo jaten.
- d) Afarira joatekotan egon nintzen.

**65 "Zuk hori egia dela ....., sinetsi egin beharko!" Zein EZ DA zuzena?**

- a) esanda
- b) badiozu
- c) esan duzunez gero
- d) esan ahala

**66 Gernikarrek ..... kanpotik etorritako jende ..... aukera ederra izan zuen.**

- a) ezik / ugariak ere
- b) ezean / ugari ere
- c) ez ezik / ugariak ere
- d) gain / ugariak ere

**67 Aitari "Cara al Sol" abestu nionean, sutan jarri zen. Kantu batengatik hala .....**

- a) jarri ere!
- b) jartzeko gogo!
- c) jartzea ere!
- d) jarrita ere!

**68 "Gau osoa eman dut ....." Zein EZ DA zuzena?**

- a) loak hartu ezinik.
- b) loak hartu ezinda.
- c) loak hartu ezin gabe.
- d) loak hartu ezinean.

**69 Hurrengo hiru probak izango dira bost, zazpi eta hamar ordukoak, ..... .**

- a) hurrenez hurren
- b) besteak beste
- c) batez beste
- d) aurrez aurre

**70 Ni nengoen gaixorik, ez hura; baina zer da eta, nire aurretik bera hil, ..... .**

- a) alegia
- b) alajaina
- c) jakina
- d) agian



**ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK****HE2**

1	B	11	A	21	D	31	A	41	D	51	A	61	B
2	C	12	A	22	A	32	A	42	B	52	D	62	C
3	C	13	D	23	C	33	C	43	C	53	C	63	D
4	D	14	D	24	A	34	C	44	A	54	D	64	A
5	A	15	C	25	A	35	D	45	C	55	C	65	D
6	C	16	D	26	B	36	B	46	A	56	A	66	C
7	B	17	B	27	B	37	C	47	D	57	A	67	C
8	A	18	D	28	B	38	B	48	C	58	D	68	C
9	C	19	B	29	B	39	C	49	B	59	B	69	A
10	A	20	C	30	B	40	D	50	C	60	B	70	B